

Euskal AEko gastu turistikoa % 4,4 hazi zen 2016an, eta bere BPGd-aren % 6,1ean dago

Gipuzkoan BPGd-aren % 7,7an dago, Bizkaian, % 5,3an eta, Araban, % 5,2an

Euskal AEn 2016an egindako gastu turistikoa % 4,4 hazi zen, 2015aren aldean, Eustatek emandako datuen arabera. Termino absolutuetan, 2015ean 4.119 milioikoa zen eta, 2016an, 4.299koa. BPGd-ari dagokionez, gastu turistikoa % 6,1ekoa izan zen 2016an, 2015ean baino hamarren bat gehiago.

Gastuaren gorakada hori turismo hartzailean (% 5,5) gertatu da, alegia, atzeritik edo Estatuko hainerako lekuetatik datozen turistek eta txangozaleek egiten dutenean, bai eta gastu turistikoaren beste osagai batzuetan ere (% 3,2). Horrek, aurten ere, turismo hartzaileak gastu osoan izan duen parte-hartzearen gorakada ekarri du; 2016an % 51,5ekoa izan da, eta ehuneko 0,6 puntu hazi da, 2015aren aldean.

1. Taula. Euskal AEko BPGra turismoak egindako ekarpena. Balio absolutua eta portzentajea. Uneko prezioak(milaka euro). 2010-2016(a)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016(a)
Turismoko gastua, guztira	3.618.945	3.706.425	3.799.935	3.803.144	3.921.201	4.119.211	4.299.288
Turismo hartzilea	1.712.795	1.782.052	1.875.625	1.898.298	1.988.273	2.097.648	2.213.667
Turismoaren beste osagai batzuk	1.906.150	1.924.373	1.924.310	1.904.846	1.932.928	2.021.563	2.085.621
Turismoko gastua, guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Turismo hartzilea	47,3	48,1	49,4	49,9	50,7	50,9	51,5
Turismoaren beste osagai batzuk	52,7	51,9	50,6	50,1	49,3	49,1	48,5
BPGaren (m.p.) gainera ehuneko							
Turismoko gastua, guztira	5,4	5,5	5,8	5,8	5,9	6,0	6,1
Turismo hartzilea	2,6	2,7	2,9	2,9	3,0	3,0	3,1
Turismoaren beste osagai batzuk	2,8	2,8	2,9	2,9	2,9	3,0	3,0

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

Oinarria 2015

(a) Aurrerapena


“Gastu turistikoaren beste osagai batzuk” partidan honako hauek jaso dira: Euskadiko turistek eta txangozaleek Euskal AEn egiten duten gastua, euskal administrazio publikoek turismoaren funtzioan egiten duten gastua eta turismoaren adar berezietako enpresen kapital-eragiketa gordina.

Gastu turistikoaren barruan, nabarmentzekoa da txangozaletasunaren garrantzia; bertan sartzen dira ohiko bizilekutik kanpora gaurik ematen ez duten bidaiarien bidaiak turistikoak, bai Euskal AEko egoiliarrenak, bai Estatuko gainerako erkidegoetatik eta atzeritik datozenenak. Frantzia hurbil egoteak azaltzen du ezaugarri hori, batik bat Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Euskal AEk jarraitzen du nabarmen izaten turismo igorleak (euskaldunek Euskal AEtik kanpora egiten dituzten bidaiak eta ibilaldiak) hartzailearen aldean (Euskal AEn bizi ez direnen bidaiak eta ibilaldiak) gastuari dagokionez duen garrantziagatik; 2016an defizita ekarri zuen, 2.325 milioi eurokoa, BPGd-aren % 3,3koa. Nahiz eta 2010-2014 aldian saldo hori murriztu egin zen, turismo hartzailearen dinamismoa areagotu zelako eta erkidegotik kanpo euskaldunen gastuari eutsi zitzaiolako, 2015ean berriz ere egin zuen txarrera, turismo igorlearen gastuak gora egin zuelako, eta nabarmenago egin zen 2016an.

Zehazki, 2016a nabarmena da turismo igorlearen gastuaren bilakaera dinamikoagoa izan delako (% 5,7) hartzailearenaren aldean (% 5,5); beraz, saldo turistikoa negatiboak % 5,8 egin du gora.

Euskal AEaren turismo-fluxuen saldoa (milioi euro)



Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

Gastu turistikoa hazi egin da 2016an, hiru lurraldeetan

Gastuaren terminoetan, Bizkaia 2016aren guztizkoaren % 44,3 izan zen, gero Gipuzkoa, oso antzera, % 41,9 eta, ondoren, Araba (bertan gastua guztizkoaren % 13,8 izan zen). 2015aren aldean izan duen bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan, baina Gipuzkoan hobeia izan da, % 4,9ko igoera izan baitu, batez bestekotik gora; Bizkaian hazkuntza % 4,4koa izan da eta, Araban, % 2,8koa.

Gipuzkoan du, oraindik, turismoak ekonomiaren gainean efektu eragile handiena, gainerako lurralde historikoen aldean, nahiz eta beste bi lurraldeetan protagonismoa ere gorantz doan. 2016an, gastu turistikoa Gipuzkoan bere BPGd-aren % 7,7koa izan da, eta Bizkaian adierazle bera % 5,3koa da (gehiengo historikoa bi kasuetan), eta, Araban, % 5,2koa.

Azkenik, 2015ean, turismoak 46.436 enplegu sortu zituen Euskadin, alegia, erkidegoko enpleguaren bolumen osoaren % 4,6.

2. taula: Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. BPGaren (m.p.) gaineko balio absolutua eta ehunekoa. Uneko prezioak (milaka euro). 2005-2016(a)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016(a)
TURISMOKO GASTUA							
Euskal AE	3.618.945	3.706.425	3.799.935	3.803.144	3.921.201	4.119.211	4.299.288
Araba/Álava	507.920	543.392	571.949	551.456	563.089	579.464	595.708
Bizkaia	1.573.132	1.623.525	1.661.834	1.680.990	1.724.166	1.823.481	1.903.694
Gipuzkoa	1.537.893	1.539.508	1.566.152	1.570.698	1.633.946	1.716.266	1.799.886
EHUNEKOAK							
Euskal AE	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Araba/Álava	14,0	14,7	15,1	14,5	14,3	14,1	13,8
Bizkaia	43,5	43,8	43,7	44,2	44,0	44,2	44,3
Gipuzkoa	42,5	41,5	41,2	41,3	41,7	41,7	41,9
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa							
Euskal AE	5,4	5,5	5,8	5,8	5,9	6,0	6,1
Araba/Álava	4,8	5,0	5,3	5,2	5,2	5,2	5,2
Bizkaia	4,6	4,8	5,0	5,1	5,1	5,3	5,3
Gipuzkoa	7,0	7,0	7,2	7,3	7,4	7,6	7,7

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

2015 Oinarria

(a) Aurrerapena

Informazio gehiago.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62